



Unibertsitateko lanean agertzen zaizkizun hizkuntzarazoez galdetzeko txokoa duzu EHULKU zerbitzua.

Hona hemen landu diren galde-erantzunetariko batzuk:

GALDE-ERANTZUNAK

Galdera:	Gure jakintza-arloan (Biologia Zelularra) asko erabiltzen dugu 'zelulen isolamendu' esapidea, zelula mota bat besteetatik bereizi dugula adierazteko. Kasu honetan ere hobeto leudeke beste aukera horiek (bakartu, bakandu...)?
Erantzuna:	<i>Hiztegi Batuaren</i> arabera, 'zelulen isolamendu' esapidea ez da zuzena zelula mota bat besteetatik bereizi dela adierazteko. Hori adierazteko, 'zelulen bakartze' edo antzekoren bat erabil genezake. Zuzenak dira, ordea, 'isolamendu akustiko', 'isolamendu termiko' modukoak. Baina, horrelakoetan, alegia Fisika arloan, honako hau da adiera: gorputz bat kanpoko eragin termiko, akustiko, elektriko eta abarretatik babestu.
Erantzun mota:	Euskaltzaindiaren araua
Erantzunaren estatusa:	behin betikoa
Gako-hitzak:	isolatu
Saila/Langaia konbinazioa:	HIZTEGI OROKORRA/isolatu

GALDE-ERANTZUNAK

Galdera:	Gorde behar da "e" epentetikoa Fsikako sinboloen deklinatzean?
Erantzuna:	Sinboloak eurak ez dira irakurtzen, haiei dagozkien esapideak baizik, osorik: cm = <i>zentimetro</i> , eta ez <i>ze-me</i> . Eta haien deklinatzea irakurketa oso horren arabera gauzatu beharra dago; hots, irakurketa hedatua bokalez ala kontsonantez bukatzen den, loturazko bokalaz (e bokalaz) erantsiko zaio edo ez sinboloari deklinabide-atzizkia: <i>bi megaelektronvolteko energia zinetikoa = 2 MeV-eko energia zinetikoa</i> , eta ez <i>2 MeV-ko energia zinetikoa</i> . Zenbakiak deklinatzean ere horrela egiten da: <i>hogeita bostetik = 25etik</i> .
Erantzun mota:	EHULKUren aholkua
Erantzunaren estatusa:	behin-behinekoa
Gako-hitzak:	sinboloak eta deklinabidea, sinboloak, 1 km-ko/1 km-eko

GALDE-ERANTZUNAK

Galdera:	Nola eman: web gune, web orri?
Erantzuna:	'Web' hitza izen arrunta da, eta 'amaraun' esan nahi du. Exoelkarte bat osatzen dugu, 'amaraun'-en ordeztu 'web' hitz arrotza (kanpokoa, exo) erabiliz. Euskaltzaindiaren arauari jarraituz, 'amaraungune' eta 'amaraun-orri' emango genuke, 'amaraun' erabiliz gero. Beraz: 'webgune' eta 'web-orri'.
Erantzun mota:	EHULKUren aholkua
Erantzunaren estatusa:	behin betikoa
Gako-hitzak:	webgune, web-orri
Saila/Langaia konbinazioa:	Exoelkarteak: telemezu, infragorri/exoelkarteak: webgune, web-orri

GALDE-ERANTZUNAK

Galdera:	Matematika arloan, "infinitu" erabil daiteke zenbatzaile gisa? Alegia, ondo al dago 'infinitu lerro', 'lerro kopuru mugagabea' adierazteko?
Erantzuna:	'Infinitu' hitzak hiru adiera nagusi ditu: izan liteke izena ('infinituaren ikurra da...'), izan liteke izenondoa ('denbora infinitua du betikotasunak'), izan liteke zenbatzailea ('infinitu puntu ditu zirkuluak'). Beraz, zuzen dago 'infinitu lerro'. Kontagarri ez direnekin ere erabil daiteke: 'ur infinitua', 'pazientzia infinitua'.
Erantzun mota:	EHULKUren aholkua
Erantzunaren estatusa:	behin betikoa
Gako-hitzak:	infinitu
Saila/Langaia konbinazioa:	ESPEZIALITATE-HIZTEGIA (TERMINOLOGIA)/terminoak

EHULKUren bidez, galderak bidal ditzakezu,
eta elkarren artean argituz joango gara.

Zeure hizkuntza-arazoari irtenbidea
emateko proposamenen bat baldin baduzu,
ipini galderarekin batera. Testuingurua ere
adieraziezaguzu, oso mesedegarria
baitzaigu erantzuna taxutzeko orduan.

Hona erabiltzaile baten galdera, testuingurua egoki adierazirik:

Aupa, lagunok:

Bias (en) eta *sesgo* (es) terminoen euskarazko baliokidearen bila nabil. UZEI, Elhuyar, Euskaltzaindiaren Corpusa, Morris eta abar begiratuta, aukera bi ageri dira: ‘zehartasun’ eta ‘alborapen’.

Hona testuingurua: magnitude fisikoen neurketak egin ostean, hartutako balioek eduki dezaketen errore sistematikoa; hau da, behin eta berriz benetako balioaren eta neurtutako balioaren artean aldea egotea. Estatistikaren alorreko adieraz ari naiz.

Ondo ibili.

Erantzuna ikusteko, [hemen](#) klik egin.

Atseginez erantzungo dizugu, ahal
dugun neurrian.

Ongi izan.